



01 EMAITZAK ETA AZTERKETAK >>>

EUSKARAREN KALE-ERABILERA ARABAN: 1989-2006

Iñaki Martínez de Luna

EHU

Helbide elektronikoa: i.martinezdeluna@ehu.es

Euskal Herriko euskararen kale erabileraren neurketa honek interes handia piztuko du, zalantzarik gabe, euskalgintzan eta hainbat gizarte eragileengan. Izan ere, bost aldiz errepikatu den eta hamazazpi urteko bilakera jasotzen duen neurketa bat ez da, euskal soziolinguistikan, ahutzaren gauerdiko eztula.

Besteak beste, Arabari buruz bilduriko informazioak hainbat puntu azpimarragarri eskaintzen digu, ondoko lerroetan azalduko dugun bezala.

BILAKAERAREN GORABEHERAK ULERTZEKO GAKOA

1989tik 2006ra bitarteko euskararen kale-erabilerak gorabehera nahaspilatsuak erakusten ditu, Araban zein Gasteizen. Alegia, Lurralde Historiko horretan, lehenengo hamarkadaren egoera egonkorriari 2001eko jai-tsierak darraio eta azken datu honi 2006ko neurrigabeko gorakadak.

EUSKARAREN KALE-ERABILERA 1989-2006 (%tan)			
URTEA	Araba	Gasteiz	Euskal Herria
1989	3,9	2,0	10,8
1993	3,9	2,5	12,0
1997	3,8	2,9	13,0
2001	3,3	2,8	13,5
2006	4,7	4,0	14,2

Gorabehera horiek metodologiari berari egotzi ezean ez dira ulergarriak. Demagun, adibidez, gero eta arabar gehiagok dakitela euskaraz (estatistika guztiek erakusten duten bezala); egoera –erreal– horretan, litekeena da erabilerak, nola edo hala, gora egitea edo bere horretan mantentzea, baina ez jaistea. Zergatik, ordea, 2001eko atzerapausoa? Eta, erabileraren beherakadaxo horren ondoren, zergatik 2006ko gorakada? Nik, bederen, ez dut soziolinguistikoki arrazoitu moduko erantzunik aurkitu.

Erantzun bila, metodologiarekin egiten dugu topo. Alegia, kale-erabileraren neurketarako erabiltzen den behaketa teknikaren ezaugarriekin. Neurketa horietako bakoitzean diseinu eta prozedura berbera erabili arren, nork ziurta dezake neurgai den egoeraren egonkortasuna? Bestela esanda, kokapen berean, urte sasoi berean, ordutegi berean eta neurketaren gainontzeko baldintzak urtez urte berdina berdina mantendu arren, onartu beharko dugu ikusmiran suertatzen zaizkigun solasaldiak ezberdinak izan daitezkeela, hainbat gora-beheren arabera: hileta-elizkizuna aldameneko elizan bada behaketa egiten dugun orduetan, hildakoa familia euskaldun bateko kidea izan edo familia erdaldun batekoa izan, eta gure datuen egonkortasuna pikutara joango da. Hona hemen, beste arrisku bat: neurketak urtez urte leku berean burutu arren, inguru horretako etxepeetan kokatutako dendak, tabernak lantokiak eta eurek eragiten duten giroa, aldiz aldi aldatzea. Egia da solasaldi bakar bat ez dela neurtzen eta neurtutako solasaldi edo mintzaldien kopurua handia denean datuek egonkortzera jotzen dutela, baina hala ere...

Bestalde, ezin dugu ahaztu bildutako informazioa lagin bidez bildutakoa denik. Hortaz, 2002an esaten genuena gogoraraziko dugu hemen:


Eta laginketaren bidezko datu guztietan ezinbestez gertatzen den lagin-errorea kontuan hartuta, euskararen erabileran balizko aldaketa txiki oro -goranzko nahiz beheranzkoa- lagin-alboraketa horren barnean suerta daiteke, benetako joera nolakoa den ezagutzeko parada galaraziz. (Martinez de Luna, 2002: 70)

1989tik 2006ra bitarteko euskararen kale-erabilerak gorabehera nahaspilatsuak erakusten ditu, Araban zein Gasteizen. Alegia, Lurralde Historiko horretan, lehenengo hamarkadaren egoera egonkorrari 2001eko jaitsierak darraio eta azken datu honi 2006ko neurrigabeko gorakadak.

Horregatik, 1989-2006 datuen irakurketak denbora tarte osoaren joera edo noranzkoa hartu behar du kontuan, ez neurraldiz neurraldiko datu xeheak eta gorabehera zehatzak. Datu irakurketa egokirako irizpi-deak behin finkatuta, gertu gaude 2006an jasotako emaitzez jarduteko.

GORANTZ, BAI, BAINA GELDOKI

Hamazazpi urteotan, Gasteizen, euskararen kale-erabilera bikoiztu da, ehuneko ehun hazi da. Hitz potoloak baina errealitate apala: 1989an %2koa zen eta 2006an halako bi (%4). Araban ere euskararen kale-erabilera areagotu den arren, igoera hori txikiagoa izan da hamazazpi urteotan: 3,9tik 4,7ra (%20,5).



Goranzko joera hori bat dator Euskal Herri mailan antzematen denarekin, baina Arabako zein Gasteizko aldatetxoek *nagikeriak* jota dirudite, Euskal Herriko datuak gorantz bizkorrago egiten du-eta. Horrek ez gaitu harritu behar, inondik inora, izan ere, Araba eta Gasteizen gertatzen den bezala, gehienbat erdaraz bizi den gizarte bateko harreman sareak euskalduntzea zeregin motela bezain lan-zama mardula da. Eta solasaldiak, azken buruan, hiztun bakanduengan ez, baizik eta harreman-sareetan gauzatzen dira. Euskaldunen proportzioa handiagoa den lekuetan, aldiz, euskarazko harreman sareak badaude dagoeneko eta horiek dira belaualdi euskaldun berrien babes eta euskarri. Hortaz...

... gaitasun-mailak modu biderkatzailean eragiten du erabileran. (...) hau da, bi aldagaien arteko korrelazioa geometrikoa da. (...) Zenbat eta gaitasun-maila handiagoa, orduan eta gertuago dago erabilera gaita-

sun-mailatik (indizea 1 izatetik). Jakin badakigu gaitasun-mailak, besteak beste, mintzakide potentzial gehiago ekartzen dizkigula, eta elkarriketak euskaraz gertatzeko ezinbestekoa dugu mintzakideak elebidunak izatea. Mintzakide elebidunen presentzia handitzeak (gaitasun-maila) erabilera hobetu egiten du eta, beraz, indizea 1etik gertuago geratzen da. (Altuna, 2002: 44)

Baina, Gasteizen eta Araban (balizko mintzakide) euskaldunen presentziak gora egiten duen arren, erabilerak jauzi handia egin dezan behar diren baldintzak oso urrun daude, oraindik ere. Batetik, euskaldunen proportzioak oso apalak izanik -Altunaren azalpenari jarraiki- horien igoerek, erabileran, oso eragin apala dutelako. Bestetik, euskaldunak diren gazte jende horiek -gazteak, gehienbat, aurrerago ikusiko dugun bezala- erdarazko harreman sareetan gizarteratuta daudelako, berariazko harreman sare euskaldunak sortzera iritsi gabe. Hau da, zonalde euskaldunetako belaunaldi euskaldunak euskarazko gizarte harreman sareetan hazten diren bitartean, Gasteizen eta Araban euskarazko sarerik ia ez dago, euskaldunak erdarazko harreman sareetan gizarteratzen direlarik. Hortaz, zonalde erdaldunetan harreman sare berririk sortu ezean, ez dago euskaraz norekin egiterik eta, euskaldun gehiago egonda ere, erabilerak bere horretan dirau.

Gogora dezagun, ildo beretik, euskararen ezagutza maila %0-25 bitartekoa duten Hego Euskal Herriko udalen erabilera, 2006an, %4,4 dela, batez beste. Hortaz, Arabako eta Gasteizko erabilerak ia bete-betean sartzen dira erreferentzi tarte horretan.

Azken buruan, esan dezagun *gorantz, bai, baina geldoki* ari dela mugitzen euskararen kale-erabilera Araban eta Gasteizen, hizkuntza egoera aldatzearen kontrako inertzia Lurralde Historikoan oraindik astunagoa izanik bere hiriburukoa baino.

GASTEIZKO EGOERA KONPARATUA

Gizarte gertaerak aztertu eta interpretatzerakoan, beste lekuetako egoerak ere kontuan hartzea lagungarria da, guztiz. Hortaz, Hego Euskal Herriko lau hiriburu-tako datuekin alderatuko ditugu, lehendabizi, Gasteizkoak.


Eta laginketaren bidezko datu guztietan ezinbestez gertatzen den lagin-errorea kontuan hartuta, euskararen erabileran balizko aldaketa txiki oro goranzko nahiz beheranzkoa lagin-alboraketa horren barnean suerta daiteke, benetako joera nolakoa den ezagutzeko parada galaraziz. (Martinez de Luna, 2002: 70)

Horregatik, 1989-2006 datuen irakurketak denbora tarte osoaren joera edo noranzkoa hartu behar du kontuan, ez neurraldiz neurraldiko datu xeheak eta gorabehera zehatzak. Datu irakurketa egokirako irizpideak behin finkatuta, gertu gaude 2006an jasotako emaitzez jarduteko.

Hamazazpi urteotan, Gasteizen, euskararen kale-erabilera bikoiztu da, ehuneko ehun hazi da.


Hitz potoloak baina errealitate apala: 1989an %2koa zen eta 2006an halako bi (%4). Araban ere euskararen kale-erabilera areagotu den arren, igoera hori txikiagoa izan da hamazazpi urteotan: 3,9tik 4,7ra (%20,5).

Eta solasaldiak, azken buruan, hiztun bakanduengan ez, baizik eta harreman-sareetan gauzatzen dira. Euskaldunen proportzioa handiagoa den lekuetan, aldiz, euskarazko harreman sareak badaude dagoeneko eta horiek dira belaunaldi euskaldun berrien babes eta euskarri.



Xehetasunez jositako datuen irakurketan galtzera iritsi gabe, begi bistakoa da Iruñea, Gasteiz eta Bilboko erabilera mailak eta euren bilakera ez daudela oso urruti elkarrengandik. Bestalde, Donostia da erabilerririk altuena duen Hegoaldeko hiriburua eta bere hazkundera ere gailentzen da. Izan ere, Donostiakoan beste hiriburuetakoeekin alderatuta, oso ongi ikusten da lehen aipatzen zen gertakizuna: zenbat eta hizkuntza gaitasuna altuagoa, erabilerearen hazkundera ere handiagoa.

Gasteizko egoera konparatiboki aztertzeke beste aukera bat da gainontzeko udal arabarreko datuei erreparatzea. Gogora dezagun euskararen kale-erabilerearen datua zertxobait apalagoa zela Gasteizen Araban baino (Gasteiz barne zelarik): %4 eta %4,7, hurrenez hurren. Udalen tamainaren araberrako informazioari esker argiago ikusten da Arabako hiriburuaren eta gainontzeko udalerrien artean dagoen erabilera-tartea.



Izan ere, Gasteiz da, Araban, 100.000 biztanletik gorako tamaina duen udal bakarra eta –esan bezala– bere euskararen erabilera %4koa da; aldiz, dimentsio txikiagoak dituzten beste udaletan %6-%8,9 bitarteko erabilera antzeman da. Horrela aztertuta, Gasteiz eta gainontzeko udalen arteko aldea berretsita eta areagotuta ikusten dugu (horrela ere, oso handia ez izan arren), tamaina txikiagoa duten udaletan Gasteizko balioak eragiten ez duelako eta Arabako batez bestekoa, aldiz, bai.

Dena den, udalerrien tamainaren arabera azterketarekin ez dugu jarraituko, datuetan udal dimentsioak baino askoz gehiago kokapen geografikoak eta auzo-udalek eragiten dutelakoan; adibidez, Bizkaiko zein Gipuzkoako udalerrri euskaldunekin muga egiteak edo, beste muturrean, La Rioja edo Burgosekoekin.

Donostiakoan beste hiriburuetakoein alderatuta, oso ongi ikusten da lehen aipatzen zen gertakizuna: zenbat eta hizkuntza gaitasuna altuagoa, erabileraren hazkundera ere handiagoa.

KALE-ERABILERA, ADIN TALDEKA

Adin tarteka hartuta, interes handiko datuak aurki ditzakegu. Gainera, horiek arakatzea lagungarri gerta dakiguke egoera eta joera orokorren muinetara hurbiltzeko.

KALE-ERABILERA, ADIN-TALDEKA (%)								
URTEA	Haurrak		Gazteak		Helduak		Adinekoak	
	Araba	Gasteiz	Araba	Gasteiz	Araba	Gasteiz	Araba	Gasteiz
1989	5,7	2,7	3,3	2,0	3,4	2,0	4,8	0,7
1993	5,8	4,2	3,5	2,0	3,5	2,6	4,1	0,9
1997	5,4	4,6	3,6	3,4	3,4	2,4	1,4	0,9
2001	4,4	3,5	3,7	3,4	3,2	2,9	0,9	0,3
2006	6,8	5,8	6,6	6,3	4,5	3,7	0,8	0,6

Hamazazpi urteko tartea osorik hartuta, haur, gazte eta helduengan norabide berdineko joera agertzen zaigu Araban eta Gasteizen: euskara gero eta gehiago erabiltzearena. Zehatzago, 2006ko haur eta gazteen adin-taldeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, batez ere Araban (%6,8 eta %6,6, hurrenez hurren), baina baita Gasteizen ere (%5,8 eta %6,3, hurrenez hurren).

Neurraldiz neurraldiko gorabeheren gainetik, helduen datuek ere gora egiten dute Araban eta Gasteizen, hazkunde apalarekin bada ere. Pentsatzekoa da Arabako eta Gasteizko haur, gazte eta helduengan antzeman den kaleko euskararen erabileraren gorakadatxo, arloan arloko hizkuntza politiken zeharkako ondorioa izango dela. Bestela esanda, irakaskuntzan, batez ere, eta eremu publiko zein pribatuko hainbat plan-

Hamazazpi urteko tartea osorik hartuta, haur, gazte eta helduengan norabide berdineko joera agertzen zaigu Araban eta Gasteizen: euskara gero eta gehiago erabiltzearena. Zehatzago, 2006ko haur eta gazteen adin-taldeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, batez ere Araban (%6,8 eta %6,6, hurrenez hurren), baina baita Gasteizen ere (%5,8 eta %6,3, hurrenez hurren).

Neurraldiz neurraldiko gorabeheren gaintetik, helduen datuek ere gora egiten dute Araban eta Gasteizen, hazkunde apalarekin bada ere. Pentsatzekoa da Arabako eta Gasteizko haur, gazte eta helduengan antzeman den kaleko euskararen erabileraren gorakadaxoa, arloan arloko hizkuntza politiken zeharkako ondorioa izango dela. Bestela esanda, irakaskuntzan, batez ere, eta eremu publiko zein pribatuko hainbat plangintzatan pixkanaka-pixkanaka ezartzen ari diren euskararen aldeko neurriak euskararen kale-erabileran ere islatzen direla.

gintzatan pixkanaka-pixkanaka ezartzen ari diren euskararen aldeko neurriak euskararen kale-erabileran ere islatzen direla.


Arabako adinekoen artean, aldiz, jaitsiera nagusitzen da, hamazazpi urteetan lau puntu galduz (%4,8tik %0,8ra). Gogoan izan behar dugu Euskal Herriko datuetan beste horrenbeste gertatzen dela adin horietako euskararen erabilerarekin, jaitsiera hori Arabakoa baino txikiagoa bada ere (%13,7tik %10,6raino). Bestalde, adinekoen euskararen erabilerak ia hutsaren hurrengoa jarraitzen du izaten, Gasteizen (2006an, %0,6koa).

Izan ere, azken urteotan *adineko* kategoriara iristen ari den belaunaldia aurrekoak baino erdaldunagoa da Arabako eskualde batzuetan (Hego Euskal Herrian bezala, oro har), ordura artekoa baino. Hau da, herri eta eskualde askotan euskararen altxorra galtzen joan da belaunaldiz belaunaldi, orain *adineko* kategoriara iristen ari den belaunaldiarengan joera horrek hondoa jo duen arte; hau da, Arabako lur gehienetan eta Gasteizen, euskaldunak ia desagertuta egon arte. Horregatik gertatuko zen erabileraren jaitsiera adinekoen artean, aztertu den hamazazpi urteko tartean.

KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA

Kalean behaturiko solaskideen sexuari erreparatuta, zera esaten gauen 2001eko datuen harira: Arabako eta Gasteizko emakumezkoengan euskararen erabilera zertxobait altuxeagoa zela gizonezkoengan baino (puntu batetik hamarren batera doan tartearrekin, kasuen arabera), eta Euskal Herriko datuetan ere berezitasun bera aurkitzen genuela 2001eko datuetan, baina ez 1997koetan.

2001ean emakumeengan gailentzen zen euskararen erabilera altuxeagoarekin topo egiten dugu 2006an, berriz ere, eskura ditugun Gasteizko datuetan, bederen.



Izan ere, euskararen kale-erabilera sexuaren arabera eta adin tarteka aldi berean aztertuz gero, Gasteizen ere Hego Euskal Herriko beste hiru hiriburuetan nagusitzen den joera bera aurkitzen dugu: emakumezkoen erabilera zertxobait handiagoa izatea gizonezkoena baino, eta hori haur, gazte, heldu eta adinekoengan. Hala ere, emakumezkoen erabilera altu-xeago hori are nabarmenagoa da gazteengan, beste adin-taldeetan baino.

Horregatik, zera esaten genuen 2001ean, Euskal Herriko Iparralde eta Hegoaldeko datuak aztertu eta gero:

...oraintsu arte euskara ondorengotaratzeko zein jarrera eta portaera ezberdinak nagusitu diren ikusita, ez dirudi astakeri bat ondoko hipotesia luzatzea -tentu handiz bada ere-: kulturalki emakumezkoek garai eta hizkuntz exijentzia berriei egokitzeko gaitasun handiagoa erakusten dute eta gizonezkoek, aldiz, ohitura eta usadioei eusteko joera sendoagoa. (Martinez de Luna, 2002: 69)

2006an jasotako datuek hipotesi hori edota beste batzuk eraikitzeke zilegitasuna berresten dute, Hegoaldeko hiriburuei dagokionez, bederen. Hemen, hala ere, joera horren aipatze hutsean gelditu beharra dugu, baina honetaz maila teorikoan gehiago jakin nahi duenari Jone Miren Hernandezen artikulua interesagarria jo dezala gomendatzen diogu (Hernandez, 2004: 79-95).

KALE-ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA

Behaturiko solaskideen arteko euskararen erabileran asko eragiten du pertsona nagusiek eta haurrek elkarri hitz egiteak.

KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA					
2006 urtea	Erabilera, oro har, haurren bat tartean dagoela (%)	Nagusien arteko erabilera (%)		Haur-Nagusien arteko erabilera (%)	Haurren arteko erabilera (%)
		Haurren bat tartean dagoela	Haurrik gabe		
Gasteiz	5,9	3,0	2,6	8,9	0,8

Gasteizen, heldu-haurren arteko harremanetan euskararen erabilera altuagoa da (%8,9) beste konbinazio mota guztietan baino; Gainera, Gasteizen ez ezik, Hego Euskal Herriko beste hiriburuetan ere beste horrenbeste gertatzen da.

Beste muturrean, hots, haurrik tartean egon ezean, helduen arteko erabilera apalagoa da (%2,6) harreman horietan haurren bat tartean dago-

...oraintsu arte euskara ondorengotaratzeko zein jarrera eta portaera ezberdinak nagusitu diren ikusita, ez dirudi astakeri bat ondoko hipotesia luzatzea tentu handiz bada ere : kulturalki emakumezkoek garai eta hizkuntz exijentzia berriei egokitzeko gaitasun handiagoa erakusten dute eta gizonezkoek, aldiz, ohitura eta usadioei eusteko joera sendoagoa.

Zalantza izpirik ez dugu heldu-haurren arteko erabilera altuago horren atzean dagoena zer den: azken hamarkadetan, euskara ondorengotaratzeko Hegoaldean nagusitu den kezka, hain zuzen. Horren haritik, haurrei euskaraz egin behar zaiela belaunaldi batzuen leloa izan da, orain arte. Aurrera begirako zalantza dugu, hala ere, lelo hori egungo gazte jende gehienena ere ote den.

enean baino (%3). Bestela esanda, haurren presentziak helduen berauen harremanetan ere eragiten du, modu arinean bada ere.


Hala ere, ez dirudi haurrek beraiek direnik euskararen erabilera euren kabuz eragiten dutenak; izan ere, solaskideen artean haurrak baino ez daudenean euskararen presentzia inoiz baino baxuagoa da (%0,8).

Zalantza izpirik ez dugu heldu-haurren arteko erabilera altuago horren atzean dagoena zer den: azken hamarkadetan, euskara ondorengotaratzeko Hegoaldean nagusitu den kezka, hain zuzen. Horren haritik, haurrei euskaraz egin behar zaiela belaunaldi batzuen leloa izan da, orain arte. Aurrera begirako zalantza dugu, hala ere, lelo hori egungo gazte jende gehienena ere ote den.

ELEBAKARTASUNETIK ELEANIZTASUNERAKO IGAROBIDEA

Arestian ikusi dugu euskararen kale-erabilera, duela hamarkada batzuk, ia hutsaren hurrengo zela, ia erabateko elebakartasuna zegoela. Beranduago, aldaketa soziopolitiko eta soziolinguistikoen eskutik euskararen kale-erabilera gorpuzten joan da, pixkanaka-pixkanaka, eta bere presentzia oraindik ere oso apala den arren (%4), hamazazpi urteko tartean bikoiztera iritsi da. Pentsa liteke elebakartasuna iragan hurbileko kontua dela, eta oraina, belaunaldi gazteenen eskutik, elebitasun edo eleaniztasunerako igarobidea (elebitasuna inoiz posible balitz, bederen).

Izan ere, eskura ditugun datuek errealitate berri eta konplexuago bat erakusten digute. Gurean, jaramon gutxi egin ohi bazaie ere, egon badaude euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuk ere. Hori horrela dela frogatu digute, argi eta garbi, 2006ko hizkuntza erabilerako datuek.



Beste hizkuntzaren bat erabilia den hizketaldiak ia euskarazkoen parekoak izatera iritsi dira, helduen artean: %3,6 eta %3,7, hurrenez hurren. Egia da beste adin tartean beste hizkuntza horien presentzia askoz apalagoa dela; egia da, halaber, haur eta gazteen artean euskararen erabilera handiagoa dela beste hizkuntza horiena baino. Hala ere, kontuan izanda beste hizkuntzaren bat duten etorkin berrien gertakaria nahiko berria dela, deigarria da hizkuntza horiek gure kaleetan erdietsi duten lekua; kasu batzuetan, euskarak duenaren ia parekoa.

Zer dela eta, kanpoko hizkuntza horien presentzia horren handia izatea? Etorkinen kopurua euskaldunena baino handiagoa ote? Ez, argi eta garbi. Horren azalpena bestelakoa eta bikoitza litzateke: a) kanpoko hizkuntza horien hiztunek harreman oso estuak dituzte elkarrekin eta euskaldunak, aldiz, erdaldunen harreman sareetan *galduta* daudela; b) euskaldunekin ez bezala, hiztun arrotz horiek duten gazteleraz jarduteko gaitasuna apalagoa litzateke, seguru asko, beren hizkuntzetan dutena baino. Hortaz, Gasteiz edo Arabako euskaldunak kanpoko hiztun horiek baino ugariagoak izanda ere, euskara erabiltzeko beharrezkoak diren hiztunen arteko trinkotasuna eta hizkuntza gaitasun erlatiboa euskaldunei faltako litzaizkieke. Betiere suposatuta, euskararekiko duten motibazio nahikoa dela.

Horren ondorioz esan dezakegu etorkizuna elebakarra ez dela izango, ezta elebiduna ere; etorkizuna eleanitza (eta kultur anitzekoa) omen dator, beste ikerketa batzuek ere kanpoko hizkuntzei (eta kulturei) lekua egitearen aldekoak baitira: *Onartu beharreko pluraltasun horretan kanpoko euskal herritarrek ere (euskal diasporak zein etorkinek) badute zer esanik.* (Hainbat egile, 2006: 156)

AZKEN ONDORIOAK

Arabako euskararen erabilera-datuetan gertatzen diren neurraldiz neurraldiko gorabeherak metodologiari egotzi beharrekoak dira, behaketa teknikak dituen mugei zein lagin-erroreari, hain zuzen ere. Hortaz, datuen irakurketak joera edo norabide osoa hartu behar du kontuan, ez neurraldiz neurraldiko datuen irakurketa xehea.

Gorantz, bai, baina geldoki ari da mugitzen euskararen erabilera Araban eta Gasteizen, hizkuntza egoera aldatzearen kontrako inertzia Lurralde Historikoan oraindik astunagoa izanik bere hiriburuarena (Gasteiz) baino. Izan ere, soziolinguistikoki lan mardula da hizkuntza aldaketa bat burutzea, horretan eragiten duten eta aldarazi beharreko baldintza indibidualak, mikrosozialak eta makrosozialak asko eta konplexuak direlako -2001eko datuen inguruko ondorioak lantzean esaten genuen bezala- (Martínez de Luna, 2002: 71).

Hala ere, pentsatzekoa da Arabako eta Gasteizko haur, gazte eta helduengan antzematen den kaleko euskararen erabileraren gorakadatxo, arloan arloko hizkuntza politikek eragiten duten zeharkako ondorioa

Beste hizkuntzaren bat erabilia den hizketaldiak ia euskarazkoen parekoak izatera iritsi dira, helduen artean: %3,6 eta %3,7, hurrenez hurren. Egia da beste adin tartean beste hizkuntza horien presentzia askoz apalagoa dela; egia da, halaber, haur eta gazteen artean euskararen erabilera handiagoa dela beste hizkuntza horiena baino. Hala ere, kontuan izanda beste hizkuntzaren bat duten etorkin berrien gertakaria nahiko berria dela, deigarria da hizkuntza horiek gure kaleetan erdietsi duten lekua; kasu batzuetan, euskarak duenaren ia parekoa.

Horren ondorioz esan dezakegu etorkizuna elebakarra ez dela izango, ezta elebiduna ere; etorkizuna eleanitza (eta kultur anitzekoa) omen dator, beste ikerketa batzuek ere kanpoko hizkuntzei (eta kulturei) lekua egitearen aldekoak baitira: Onartu beharreko pluraltasun horretan kanpoko euskal herritarrek ere (euskal diasporak zein etorkinek) badute zer esanik.

•
Soziolinguistikoki lan mardula da hizkuntza aldaketa bat burutzea, horretan eragiten duten eta aldarazi beharreko baldintza indibidualak, mikrosozialak eta makrosozialak asko eta konplexuak direlako 2001eko datuen inguruko ondorioak lantzean esaten genuen bezala (Martínez de Luna, 2002: 71).

litzatekeela, neurri handian. Alegia, irakaskuntzan eta eremu publiko zein pribatuetako beste hainbat plangintzatan eta euskalgintzaren bultzadaz, pixkanaka-pixkanaka ezartzen ari diren euskararen aldeko neurriek euskararen kale-erabilera ere eragiten dute.

Konparatiboki aztertuta, Arabako zein Gasteizko kale-erabilera datuak eta goranzko joeraren intentsitatea homologatu daitezke euskaldunen proportzio berdintsuak dituzten beste zonaldeetakoekin. Hortaz, egungo baldintza demolinguistikoak hobetu bitartean, egoera -eskasa izanda ere- espero litekeena da.

Hegoaldeko beste hiriburuekin homologa dezakegun beste berezitasuna da sexuen arabera erabilera dagoen aldearena: euskaraz emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago hitz egitearena, alegia. Hizkuntza erabilera ezberdin horiek behin eta berriz agertzen direla ikusita, horien azpian dagoen funtsa sendoaren susmoa berresten da. Nolakoa, baina? Erantzun bakarra eta egokia bilatzea zaila da, bertan zein kanpoan horren inguruan hainbat ikuspegi ezberdinetatik teorizatu baita.

Beste lurraldeekiko homogeneotasuna agertzen da, berriz ere, solasaldietan haurrak presente daudenean: euskara ondorengotaratzearaz kezkatuta-edo, gainontzeko egoeratan baino gehiago jotzen dute helduek hizkuntza horretara haurren bat tartean dagoenean eta, bereziki, haurrari zuzentzen zaizkionean.

Bestalde, elebakartasuna iraganean ahaztuta, euskararen berreskurapenarekin batera kanpoko beste hizkuntza batzuk ere gero eta entzunagoak dira gure bazterretan; etorkizuna eleaniztasunaren -eta kultur aniztasunaren- moldez idatziko omen da, egungo egoera bi aro horien arteko igarobidea delarik.

Bukatzeko esan, Araba eta Gasteizko datuak itxaropentsuagoak direla, 2006an. Gure hizkuntza berreskuratzeak kezkarako motibo ugari ematen digu oraindik orain, baina egindako ahaleginen emaitzak hasi dira antzematen. Balantzea hitz gutxitan egiteko, zera esango genuke: *Argazki estatikoari erreparatuta, Araba eta Gasteizko euskararen egoera eskasa da. Aldiz, dinamikoki begiratuta joera itxaropentsua antzematen da, egoera duin batera iristeko asko falta zaigun arren.*■

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

- Altuna, O. (2002) Erabileraren IV Kale Neurketa. Emaizten azterketa. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 43 (25-35).
- Hainbat egile (2006) *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Hernandez, J. M. (2004) Euskara dela eta... Neskek, zer diote? *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 53 (79-95).
- Martínez de Luna, I. (2002) Euskararen kale erabilera Araban: 1989-2001. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 43 (65-72).